

# ARTXANDA

## UTARSUS

Ama, eztot gaur ikusten  
geure ikurriña  
goiz gustitan bezela  
mendi ganian.  
¿Zer jaso ete da?

- Ene seme egazkiñak  
atzo ixan dira ainbeste  
bai, ain sarritan!

- Bost bidarrez amatxu  
galduta giñan  
Artxanda'n. Eurek jabe  
ta gu menpian.  
Eguzkijaz batera,  
jagiten nintzan  
mendi ori ikusteko.  
Egun barriak  
ekarran beti poza.

Geure ikurriña  
Artxanda-ganez bati  
egaz... jaubia!

- Ezin betiko eutsin . . .  
Galdu, geuriak . . .  
geyenak, zaurituta  
bestiak ilda . . .  
Atzerritarrak doguz  
orain jaubiak.

Geldirik eta ixillik  
egon etxian.

Ezin, ezin, amatxu,  
ezta ori egija!  
¿Bixirik euzkotarrak  
orren menpian?.

Entzuten dot, bai, entzun  
abesten gudariak  
geruago ta urrago  
goraltzen aberrija.

- Etsayak arrapauta  
geure gastiak  
¡gaxuak! daruela  
tarrantaz ildegira.  
Lazter orman onduan  
ene semia,  
zuzkillukaz erailda  
jausiko dira . . .

¡Abestu, aintzaldu Euzkadi  
anai zintzuak!  
Ama itxi naixu, urteten.  
Eurekaz nua.

## Begoña'ko Ama Neskutz Bizkatiaren Zaindarijari

G. E. A.

Begoña'ko Miren Neskutza  
Jaungua'ren Ama garbija,  
Ortzetiko lili ederra  
Itxaso-ixar dirdizarija,  
Antxiñatik guk bizkatarrok  
Goi-Zaindaritzat autetsija.

Menditarrte ta tontorretan  
Jualiek abe ospatzen  
Ibarr-irura-zelayetan  
Suagadi-dunba-anotsek  
Lurraso ta itxas-basterretan  
Euzkotarr-bijozen taupadek.

Aberri-mendi meatziek  
Ire bakaulkirako dozak  
Urre-zidarrezko maladijek  
Itxaso-ekatxen ayarrek  
Ta axete beltzaren orruek  
Ire goraltza-eresijek.

Ziñesmen, azkatasun eta  
Oroigallubek be dabezan  
Gernika'ko Areitz, zarr-zindo  
Onetsijaren orrstuetan  
Axe leun-legunak DOJUZTA  
Eu-zaintza euzko-goguetan.

Jabon, garbi euzko-bijotzak,  
Iraunazi sendi-gentzea,  
Euzkadi'piztu euzkerea,  
Lagi-Zarra-kistar askitxek  
Ta gu biztaldijan ostian  
Arriu, Ama, eu-donokijan